2015eko MAIATZAREN 12ko UDALBATZARRA
PLENO DE 12 DE MAYO DE 2015

BERTARATUAK / ASISTEN**:**

ALKATEA / ALCALDESA: **Mª SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI**

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLETXEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:
ANDREA GOURAUD ALZUGARAY.

Tokia: BERAko Herriko Etxea	Lugar: Casa Consistorial de BERA
Eguna: 2015-05-12	Día: 12-05-2015
Ordua: 19:30	Hora: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia	Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:	ASUNTOS A TRATAR:
1.- AZKENEKO AKTAK ONARTZEA.-	1.- APROBACIÓN ACTAS SESIONES ANTERIORES.-
2015.eko apirilaren 14 eta 27an egindako bileraren aktak ikusirik, aho batez, ONARTU DITUZTE.	Vistas actas de las sesiones celebradas el día 17 y 24 de abril de 2015, por unanimidad SE APRUEBAN.
2.- BERAKO UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 2. SEKTOREA, BEHIN BEHINEKO ONESTEA.	2.- APROBACIÓN PROVISIONAL MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE EN EL SECTOR 2 DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DE BERA.
Juan Losa zinegotziak zera erran du:	*El concejal Juan Losa manifiesta:*
2., 3. eta 4. gaiak, hirigintzakoak, erretiratu	*Los puntos 2, 3 y 4 sobre urbanismo deberían*

behar dira, aldaketa suposatzen dute eta aparkatu beharko ziren 5/2015 Foru Legearengatik, 5/2015 Foru Legearen aurka daude.
Hurrengo Udalari kondenatzen zaio.

retirarse, suponen una modificación y debería aparcarse por la Ley Foral 5/2015, van en contra de la Ley Foral 5/2015.
Se condena al próximo Ayuntamiento.

Mª Sol M. Taberna Alkateak:
Gai hauek aurreko legealditik lantzen ari dira.

Mª Sol M. Taberna, Alcaldesa:
Estos temas se están trabajando desde la anterior legislatura.

Garazi Taberna:
Ez da mantentzen Juan Losak erran duena Foru Lege hori indarrean ez baitago.

Garazi Taberna:
No se mantiene lo que dice Juan Losa porque esa Ley Foral no está en vigor.

Santiago Alzuguren:
Onartzen bada eta ez badago ongi, baliogabetuko dute.

Santiago Alzuguren:
Se aprueba y si está mal ya lo revocarán.

Eztabaida bukatu eta bozketa egin da:
Aldeko botoak: 9 (4 Aralar, 3 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
Aurkako botoak: 1 (UPN).
Abstenzioak: 0.

Tras la deliberación se realiza la votación:
Votos a favor: 9 (4 Aralar, 3 Bildu y 2 EAJ/PNV).
Votos en contra: 1 (UPN).
Abstenciones: 0.

Beraz, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hartu dute:

Por lo que, con la mayoría absoluta legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Berako Udal Plan Orokorraren 2. Sektorea aldatzeko espedientea.

Visto expediente de modificación del Sector 2 del Plan General Municipal de Bera.

Dokumentazioa:
- ---------- arkitektoek eginiko "S-2ko araudiaren aldaketa egituratzailea- Behin behineko onespena-" izeneko dokumentua, 2015eko martxokoa.

Documentación:
- Documento denominado "Modificación estructurante del sector 2 –aprobación provisional-" redactado por los arquitectos ---------- de marzo de 2015.

2011ko maiatzaren 19an Udalbatzak Udal Plan Orokorreko 2. Sektorean aldaketa xehakatua behin betiko onetsi zuen.

El Ayuntamiento, con fecha 19 de mayo de 2011, aprobó definitivamente una modificación pormenorizada en el Sector 2 del Plan General Municipal.

Onespen horren aurka bi Administrazioarekiko errekurtsoak tartekatu zituzten.

Contra esta aprobación se interpusieron dos recursos contencioso-administrativos.

Horren ondorioz, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Salak 2 epai eman zituen, 94/2013 eta 95/2013, alegia.

Consecuencia de ello, la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra emitió las sentencias 94/2013 y 95/2013.

Epai hauen arabera Udalak eginiko Udal Planaren aldaketa ez zen aldaketa xehakatua egituratzailea baizik.

Hori dela eta, ikusirik Lua arkitektoak eginiko "S2ko araudiaren aldaketa egituratzailea" izeneko dokumentua, 2013ko urrikoa, eta udal abokatuak horri buruz eginiko txostena 2013ko azaroaren 6koa, Udalak 2014ko urtarrilaren 14an eginiko osoko bilkuran zera onartu zuen:

"1) S2ko Udal Planaren aldaketa puntuala hasiera batez onartutzat eta argitaratutzat ematea bere espedientean dauden txosten guztiekin dagokion prozedura jarraitu ahal izateko, aldaketa egituratzailea, 35/2002 Foru Legearen 79. artikuluaren arabera.

2) Sustapen Departamentuan espediente hau izapidetzea Udalak behin behineko onespena egin baino lehen Nafarroako Gobernuaren Ur Baliabideen Sekzioak eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak dagozkien txostenak emateko edota beharrezkoa den edozein txostena."

Bidalitako dokumentazioari buruz, Sustapen Departamentuak 2015eko urtarrilaren 15eko txosten orokorra egin eta Udalari jakinarazi zion izapidetzen ari zen dokumentazioa aldatu eta osatzeko aipatu txostenean adierazten zuen moduan aldaketa egituratzailea behin behineko onetsi baino lehen.

Txosten horri erantzuna emateko Lua Arkitektoak s.l. S-2ko araudiaren aldaketa egituratzailea- Behin behineko onespena-izeneko dokumentua egin du, 2015eko martxokoa.

Según estas sentencias la modificación del Plan Municipal realizada por el Ayuntamiento no era pormenorizada sino estructurante.

Por ello, visto el documento redactado por Lua arkitektoak de octubre de 2013 denominado "Modificación estructurante del Sector 2" y el informe emitido al respecto por el letrado municipal de 6 de noviembre de 2013, el Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 14 de enero de 2014 acordó lo siguiente:

"1) Tener por aprobada inicialmente y publicada la modificación puntual del Plan Municipal del S2 con todos lo informes que obran en el expediente para seguir el procedimiento correspondiente a su tramitación como modificación de carácter estructurante según el artículo 79 de la Ley Foral 35/2002.

2) Tramitar ante el Departamento de Fomento este expediente para informe de la Sección de Recursos Hídricos y Dirección General de Obras Públicas del Gobierno de Navarra o cualquier otro informe que se considere necesario, antes de la aprobación provisional por el Ayuntamiento."

El Departamento de Fomento emitió y notificó al Ayuntamiento informe global de fecha 15 de enero de 2015 respecto a la documentación en trámite para que ésta fuera modificada y completada en coherencia con el informe emitido, antes de la aprobación provisional de la modificación estructurante.

En respuesta al citado informe Lua Arkitektoak s.l. ha redactado el documento denominado Modificación estructurante del sector 2 –aprobación provisional- de marzo de 2015.

Kontuan hartuz, espedientean dagoen dokumentazio teknikoan, hau da, 2010eko apirilaren 29an hasiera batez onartu zuena eta txosten orokorra egiteko 2014ko urtarrilaren 14ko erabakiren bidez bidali zuenaren tartean, ez dago funtsezko aldaketarik, beraz, ez dela beharrezkoa jendaurrean berriro jartzea.

Teniendo en cuenta que en la documentación técnica obrante en el expediente, esto es, entre la aprobada inicialmente el 29 de abril de 2010 y la remitida por acuerdo de fecha 14 de enero de 2014 para informe global, no hay modificaciones sustanciales por lo que no se estima necesaria una nueva exposición pública.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikulu batzuekin bat etorriz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, quórum legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea, 2. Sektorekoa, 2015eko martxokoa ---------- arkitektoek egina, behin behineko onestea.

1) Aprobar provisionalmente la modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Sector 2 del Plan General Municipal, redactada por los arquitectos ---------- de fecha marzo de 2015.

2) Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentura behin-betiko onar dezan espediente osoa bidaltzea.

2) Remitir el expediente completo al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva.

3.- AURREZ BEHIN BEHINEKO ONARTUTAKO DOKUMENTAZIOA ALDATZEA, UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 9. POLIGONOKO 4. LUR-ZATIA, SK-1 eta S-9AN, 12. SEKTORE BERRIA SORTZEKOA, (KAXERNA ETA BIDASOA KARRIKA ZONALDEA).

3.- MODIFICACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN APROBADA PROVISIONALMENTE PARA MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL DEL S-9, SK1 Y PARCELA 4 DEL POLÍGONO 9 PARA LA CONSTITUCIÓN DE UN NUEVO SECTOR 12 (ZONA KAXERNA Y CALLE BIDASOA).

Bozketa:
Aldeko botoak: 9 (4 Aralar, 3 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
Aurkako botoak: 1 (UPN).
Abstenzioak: 0.

Votación:
Votos a favor: 9 (4 Aralar, 3 Bildu y 2 EAJ/PNV).
Votos en contra: 1 (UPN).
Abstenciones: 0.

Beraz, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hartu dute:

Por lo que, con la mayoría absoluta legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Udal Plan Orokorraren aldaketa

Visto expediente de modificación de determi-

egituratzailea egiteko espedientea, 9. poligonoko 4. lur-zatia, SK-1 eta S-9an, 12. Sektore berria sortzekoa (Kaxerna eta Bidasoa karrika zonaldea).

Dokumentazioa:
- Hasiera bateko onespena: Proiektua ----------arkitektoak egina, 2010eko azarokoa.
Behin behineko onespena: Proiektua ----------arkitektoek egina, 2014ko ekainekoa.

- 9. poligonoko S-9, SK-1 eta 4. partzelako araudiaren eta AR-2, AR-3 eta AR-4 banaketa eta eremuen aldaketa egituratzailea, S-12 sektore berri bat sortzeko –behin betiko onespena- Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte Gorosabel arkitektoek egina, 2015eko martxokoa.
- Berako S-9 eta SK-1 unitateko urbanizazio sarbideak, trafiko estudioa, Benito Sada Lacalle Bide, UU. eta PP.etako ingeniariak egina, 2015eko martxokoa.

2014ko uztailaren 15ean Udalbatzak 9. poligonoko S-9, SK-1 eta 4. partzelako araudiaren eta AR-2, AR-3 eta AR-4 banaketa eta eremuen aldaketa egituratzailea, S-12 sektore berri bat sortzekoa, behin behineko onespena eman zion.

Behin behineko onartutako aldatzeko proiektu hori, Nafarroako Gobernuaren Sustapen Departamentuari bidalia, behin betiko onespena egiteko, honek 2014ko urriaren 6an eginiko txostena jakinarazi zion Udalari non txosten horretan adierazitako kontsiderazioak kontuan harturik aurkeztutako dokumentua aldatzeko eskatzen zion.

Beraz, aipatu dokumentua zuzendu ondoren, Udalak onartu egin behar du departamentu horri bidaltzeko.

naciones de ordenación estructurante del S-9, SK-1 y parcela 4 del polígono 9, para constituir un nuevo sector S-12 del Plan General Municipal (Zona Kaxerna y calle Bidasoa).

Documentación:
- Aprobación inicial: Proyecto redactado por el arquitecto ---------- de fecha noviembre de 2010.
- Aprobación provisional: Proyecto redactado por los arquitectos ----------, de fecha junio de 2014.
- Proyecto de modificación estructurante del S-9, SK-1 y parcela 4 del polígono 9 de las AR-2, AR-3, AR-4, para constituir un nuevo sector S-12 –aprobación definitiva- redactado por los arquitectos Xabier López de Uralde y Gotzon Olarte Gorosabel, de fecha marzo de 2015.
- Estudio de tráfico accesos urbanización unidades S-9 + SK-1 en Bera, redactado por el Ingeniero de Caminos, CC. y PP. Benito Sada Lacalle, de fecha marzo de 2015.

Con fecha 15 de julio de 2014 el Pleno aprobó provisionalmente la modificación estructurante del S-9m SK-1 y parcela 4 del polígono 9 de las AR-2, AR-3, AR-4, para constituir un nuevo sector S-12.

Remitido el proyecto de modificación aprobado provisionalmente al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva, este departamento emitió y notificó al Ayuntamiento informe de 6 de octubre de 2014 en el que requería la modificación del documento presentado en base a las consideraciones del citado informe.

Por lo que una vez modificado el citado documento procede la aprobación para su remisión al citado departamento.

De acuerdo con lo establecido en el artículo

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70. eta beste artikulu batzuekin bat etorriz.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) Behin behineko onartu zuen dokumentuaren aldaketa onestea, Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzaileari buruzkoa, 9. poligonoko 4. lur-zatia, SK-1 eta S-9an, 12. Sektore berria sortzekoa (Kaxerna eta Bidasoa karrika zonaldea), 2015eko martxoan ---------- arkitektoek egina, eta honekin batera, Berako S-9 eta SK-1 unitateko urbanizazio sarbideak, trafiko Estudioa, Benito Sada Lacalle Bide, UU. eta PP.etako ingeniariak egina, 2015eko martxokoa.

2) Onartutako dokumentazioa erabaki honekin batera Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuari bidaltzea behar diren ondorioetarako.

79.2), 70, y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, quórum legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Aprobar la modificación del documento de aprobación provisional sobre la modificación de determinaciones de ordenación estructurante del S-9, SK-1 y parcela 4 del polígono 9, para constituir un nuevo sector S-12 del Plan General Municipal (Zona Kaxerna y calle Bidasoa), redactada por los arquitectos ---------- ---------- con fecha marzo de 2015 y el Estudio de tráfico accesos urbanización unidades S-9 + SK-1 en Bera, redactado por el Ingeniero de Caminos, CC y PP Benito Sada Lacalle, de fecha marzo de 2015.

2) Remitir este acuerdo junto con la documentación aprobada al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

4.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA, LUR EZ URBANIZAGARRIKO HIRIGINTZA ARAUTEGI OROKORRA ETA HIRIGINTZA ARAUAK ALDATZEN DITUENA, BEHIN BETIKO ONESTEA.

Idazkariak zera azaldu du:
Alegazioak aurkezteko epea atzo bukatu zen eta, atzo bertan, alegazio bat sartu dute, beraz, alegazio horri erantzun behar dio Udalak eta ezin dute gaur tratatu.

Horrexegatik, gaia tratatu gabe utzi dute.

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL: NORMAS URBANÍSTICAS Y NORMATIVA URBANÍSTICA GENERAL DEL SUELO NO URBANIZABLE.-
La Secretaria explica que ayer finalizaba el plazo para presentar alegaciones y, ayer mismo, se presentó una alegación por lo que hay que dar respuesta a la misma y el tema no se puede tratar hoy.

Por ese motivo, el asunto queda pendiente.

5.- GERO LUR TRUKEA EGITEKO, BIDE PUBLIKOAREN TARTEA (11. POLIGONOA, 53. eta 252. LUR-ZATIAK) DESAFEKTATZEKO ESPEDIENTEA ALDATZEKO, BEHIN BETIKO ONESTEA.

5.- MODIFICACIÓN EXPEDIENTE DE DESAFECTACIÓN TRAMO DE CAMINO PÚBLICO (POLÍGONO 11, PARCELAS 53 y 252) PARA POSTERIOR PERMUTA DE TERRENO, APROBACIÓN DEFINITIVA.

Idazkariak espedientea azaldu du, eta, horren ondorez bozketa egin dute:

Aldeko botoak: 9 (4 Aralar, 3 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
Aurkako botoak: 1 (UPN).
Abstenzioak: 0.

Beraz, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hartu dute:

La Secretaria explica el expediente, tras lo cual, se produce la votación:

Votos a favor: 9 (4 Aralar, 3 Bildu y 2 EAJ/PNV).
Votos en contra: 1 (UPN).
Abstenciones: 0.

Por lo que, con la mayoría absoluta legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

----------ren izenean eskatua, Egurri baserriaren parean zihoan bidearen trazadura aldatzea onartu zuen Udalak.

A solicitud de ---------- el Ayuntamiento aceptó la modificación del trazado del camino que discurría al frente del caserío Egurri.

Aldaketa horrekin bide publikoaren trazadura hobetu, bere erabilera erraztu eta ez zion inolako kalterik egiten.

Con esa modificación se mejoraba el trazado del camino público facilitando su uso y sin perjuicio del mismo.

Horrexegatik, interesatuarekin adostu zuen bezala, bere lurrean okupatutako 170,99 metro karratuen ordez erabili gabe geldituko ziren bide publikoko 170,99 metro karratuak trukatuko zirela.

Es por ello que, de acuerdo con lo que se convino con la interesada, los 170,99 metros cuadrados ocupados en terrenos de su propiedad con el nuevo trazado serían objeto de permuta con 170,99 metros cuadrados del camino público que quedaban sin utilidad pública

Hori dela eta, Udalak, beharrezkoa den espedientea izapidetu ondoren, 2013ko uztailaren 23an eginiko Osoko bilkuran bide publikoko 170,99 metro karratuak desafektatzea behin betiko onetsi zuen.

Para llevarlo a cabo, el Pleno del Ayuntamiento, tras la tramitación del oportuno expediente, en sesión realizada el 23 de julio de 2013, aprobó definitivamente la desafectación de 170,99 metros cuadrados del camino público.

Hala ere, onartutako desafektazioa katastrora eramateko, lurrean eta bide publikoan bertan teknikoak egin dituen neurketak direla eta, 170,99 metro karratu okupatu beharrean 124,21 metro karratu okupatzen direla konprobatu du, horretarako eginiko planoetan agertzen den moduan.

Sin embargo, al llevar a catastro la desafectación aprobada y por las mediciones realizadas en el terreno y en el camino público, el técnico de catastro ha comprobado que los metros ocupados no son 170,99 sino 124,21, según consta en los planos realizados al efecto.

Hori denarengatik, 2013ko uztailaren 23an onartutako behin betiko desafektazioa alda-

Por todo ello, se debía modificar la desafectación aprobada definitivamente el 23 de julio

tu behar zen eta 124,21 metro karratutako desafektazioa izapidetu.

de 2013 y tramitar la desafectación correspondiente a 124,21 metros cuadrados.

2015eko martxoaren 10ean eginiko osoko bilkuran Udalak Egurri baserriko parean zihoan bide publikoaren trazadura zaharra, 124,21 metro karratutakoa, 11. poligonoko 53. lur-zatia eta 252. lur-zatien artean zihoana, desafektatzeko espedientearen aldaketari hasiera ematea erabaki zuen, espedientean dauden planoei jarraikiz, 2015eko otsailaren 20koak.

En Pleno celebrado el 10 de marzo de 2015, el Ayuntamiento inició el expediente para la modificación de la desafectación del tramo de camino público de 124,21 metros cuadrados, situado entre las parcelas 53 y 252 del polígono 11 que discurría frente al caserío Egurri, según planos que constan en el expediente de fecha 20 de febrero de 2015.

Jendaurreko epean ez dute inolako alegaziorik aurkeztu.

Durante el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 103. artikuluari eta Toki Entitateen Ogasunei buruzko Erregelamenduaren 12.1 artikuluari jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 103 de la Ley Foral de Administración Local y el artículo 12.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, quórum legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Behin betiko onestea Egurri baserriko parean zihoan bide publikoaren trazadura zaharra, 124,21 metro karratutakoa, 11. poligonoko 53. lur-zatia eta 252. lur-zatien artean zihoana, desafektatzeko espedientearen aldaketa, espedientean dauden planoei jarraikiz, 2015eko otsailaren 20koak.

1) Aprobar definitivamente la modificación de la desafectación del tramo de camino público de 124,21 metros cuadrados, situado entre las parcelas 53 y 252 del polígono 11 que discurría frente al caserío Egurri, según planos que constan en el expediente de fecha 20 de febrero de 2015.

2) Erabaki hau interesatuei eta ukituei, baleude, jakinaraztea.

2) Notificar este acuerdo a los interesados/as y a las personas afectadas, si las hubiere.

6.- "ZIGORRIAGA-LARUNALDEA"ko MENDIAN, "OIARNO" PARAJEKO OHIAN-APROBETXAMENDUAREN ENKANTEA (PEFC ohian ziurtagiria).

6.- SUBASTA FORESTAL APROVECHAMIENTO FORESTAL EN MONTE "ZIGORRIAGA-LARUNALDEA", PARAJE DE "OIARNO" (certificación forestal PEFC).

Idazkariak gaia azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Tras explicar la Secretaria el asunto, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, "Zigorriaga-Larunaldea" mendian, "Oiarno" parajeko oihan-aprobetxamenduen espedientea (PEFC ohian ziurtagiria):

Visto expediente de aprovechamiento forestal en el paraje "Zigorriaga-Larunaldea", paraje "Oiarno" (certificación forestal PEFC):

Lote	Paraje	Especie forestal	Nº pies	Volumen de madera	Volumen de tronquillo y embalaje	Volumen total	Valoración
1	Oiarno	Pino insignis	2.137	2.536,04 m.c.	634,01 m.c.	3.170,05 m.c.	74.813,11 €

Mendietako Zerbitzuko Zuzendariaren 155/2015, martxoaren 26ko ebazpenak Berako Udalaren herri-lurraren mendiari dagokion 2014ko Hobekuntza eta Aprobetxamendu Plana onartu du eta, horren ondorioz, aipatutako oihan-aprobetxamendua baimendu.

Por Resolución 155/2015, de 26 de marzo, del Director del Servicio de Montes se aprueba el Plan Anual de Aprovechamientos y Mejoras para 2014, correspondiente al monte comunal de Bera y, en consecuencia, se autoriza el aprovechamiento forestal antes reseñado.

Horregatik, ERABAKI DUTE:

Por ello, SE ACUERDA:

1) Oihan-aprobetxamendu honen enkantea arautu behar duen baldintza-plegua onestea.

1) Aprobar el pliego de condiciones económico-administrativas que regirá la subasta de este lote.

2) Aipatutako oihan-aprobetxamendua enkante irekian egitea.

2) Sacar a pública subasta la venta del citado lote forestal.

3) Enkante honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Foru Komunitatean argitaratzen den egunkari batean edo gehiagotan, Udal Taulan eta Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzea.

3) Publicar anuncio de esta subasta en el Boletín Oficial de Navarra, en uno o más diarios de los que se publican en la Comunidad Foral, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en el Portal de Contratación de Navarra.

4) Enkantea hutsa gelditu ezkero %10 eta %30arte merkeago ateratzea, bigarren eta hirugarren enkantean, hurrenez hurren.

4) Si quedara desierta la subasta sacarlo con el 10% y hasta el 30% de rebaja, en segunda y tercera subasta, respectivamente.

7.- BAZTAN-BIDASOAKO TURISMO GARATZEKO HITZARMENA ONESTEA.

7.- APROBACIÓN CONVENIO PARA EL DESARROLLO TURÍSTICO DE BAZTAN-BIDASOA.

Jon Abril zinegotziak eta Mª Sol M. Taberna Alkateak gaia azaldu dute. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:

El concejal Jon Abril y la Alcaldesa Mª Sol M. Taberna explican el asunto. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Baztan-Bidasoako Turismo garatzeko Cederna-Garalurrekin eta Baztan-Bidasoako zenbat Udalekin sinatu behar den hitzarmena.

Visto convenio para el desarrollo turístico de Baztan-Bidasoa a suscribir con Cederna-Garalur y varios Ayuntamientos de Baztan-Bidasoa.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Lehen aipatu den Baztan-Bidasoako Turismo garatzeko Cederna-Garalurrekin eta Baztan-Bidasoako zenbat Udalekin sinatu behar den hitzarmena onestea.

1) Aprobar el convenio para el desarrollo turístico de Baztan-Bidasoa a suscribir con Cederna-Garalur y varios Ayuntamientos de Baztan-Bidasoa.

2) Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 41.12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu hitzarmena Mª Sol M. Taberna Iratzoki alkateak, edo legalki ordezkatzen duenak, sinatuko duela adieraztea.

2) Señalar que, de conformidad con el artículo 41.12 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, la Alcaldesa Mª Sol M. Taberna Iratzoki o quien legalmente le sustituya será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

8.- "SAN JOSE" ZAHAR ETXETIK 3. POLIGONOKO 208. LUR-ZATIAN EGIN BEHAR DEN BERDEGUNERA JOATEKO BIDEA IREKTIZEKO HITZARMENA ONESTEA.

8.- APROBACIÓN CONVENIO PARA ABRIR UN PASO DESDE LA RESIDENCIA "SAN JOSE" A LA ZONA VERDE QUE SE VA A HABILITAR EN LA PARCELA 208 DEL POLÍGONO 3.

Mª Sol M. Taberna Alkateak azaldu du hitzarmena egiteko adostua dutela jabearekin baina, azken momentuan, gauza gehiago eskatu dutela eta, azkenean, erran dutela hitzarmena egitea ez zitzaiola interesatzen, beraz, gaia bertan behera gelditu dela.

La Alcaldesa Mª Sol M. Taberna explica que tenían acordado el convenio con el propietario pero en el último momento les han pedido más cosas y, finalmente, les han dicho que no les interesa suscribir el convenio, por lo que el asunto queda sin razón de ser.

9.- IBARDINEN ERABILERA PUBLIKOKO IGOGAILUA JARTZEKO HITZARMENA.

9.- CONVENIO PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR DE USO PÚBLICO EN IBARDIN.

Alkateak gaia azaldu du, eta, aho batez, hitzarmenari ontzat eman diote.

La Alcaldesa explica el asunto y, por unanimidad, muestran su conformidad con el convenio.

10.- SISTELEC-EKO ANTENA ERABILTZEKO INTERES PUBLIKOA DEKLARATZEKO ESKAERA: AZTIBEGIA ELKARTEA.

10.- SOLICITUD DECLARACIÓN INTERÉS PÚBLICO PARA UTILIZACIÓN ANTENA SISTELEC: AZTIBEGIA ELKARTEA.

Mª Sol M. Taberna Alkateak gaia azaldu du:
Irrati lizentzia Abian komunikazioa s.l.ari eman zaio eta, lehen, Udalak ez zion interes publikoa deklaratze hori eman. Orain elkarte batekin adostu dute lizentzia gestionatzeko, baina Udalak interes orokorrari begiratu behar dio eta adoste hau ez da arrazoia interes publikoa deklaratzeko.
Sistelec-ek kanona ordaintzen dio Udalari antenarengatik eta bere etekinak izan behar ditu. Beraz, bere taldearen proposamena da interes publikoa ez deklaratzea elkarte honi.

La Alcaldesa Mª Sol M. Taberna explica el tema:
La licencia de radio se le concedió a Abian komunikazioa s.l. y, antes, no se le dio la declaración de interés público. Ahora, han firmado un acuerdo con una sociedad para la gestión de la licencia pero el Ayuntamiento debe velar por el interés público y este acuerdo no es razón para declararla de interés público.
Sistelec paga un canon al Ayuntamiento por la antena y debe sacarle rendimiento. Por ello, su grupo propone no declarar de interés público a esta asociación.

Zinegotzi guztiak ados agertu dira, beraz, honako erabaki hau hartu dute:

Todos los concejales y concejalas manifiestan su conformidad por lo que, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, AZTIBEGIA Kultur Elkarteak eginiko eskaera non adierazi duen Abian Komunikazio s.l. enpresarekin irrati lizentzia gestionatzeko erabaki bat sinatu dutela eta, horregatik, Sistelec- s.l. enpresak kudeatzen duen antena erabiltzeko Udalak interes publikoko elkarte bezala izendatzea eskatzen duten.

Visto escrito de la Asociación Cultural AZTIBEGIA en el que manifiesta que ha firmado un acuerdo con la empresa Abian KOmunikazioa s.l. para la gestión de la licencia de radio y, por ello, solicita que el Ayuntamiento declare esta asociación como de interés público.

Kontuan hartuz, irrati litzenzia Abian komunikazioa s.l. empresari eman zitzaiola eta elkarte batekin gestioa adostea Udalak ez duela interes publikoko elkartea izendatzeko arrazoirik ikusten.

Teniendo en cuenta que la licencia de radio fue concedida a la empresa Abian komunikazioa s.l. y que acordar la gestión con una asociación no es razón para la declaración de interés público.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Lehen emandako arrazoiengatik AZTIBEGIA Kultur Elkartea udal interesa gisa ez deklaratzea.

1) Por las razones antes aducidas no declarar de interés público a la Asociación Cultural AZTIBEGIA.

2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

11.- II. MUNDU GERRAKO BIKTIMAK OROITZEKO MOZIOA.

Jon Abril zinegotziak mozioa irakurri du, eta, horren ondoren, aho batez, onartu dute honako testua izanik:

11.- MOCIÓN EN RECUERDO DE LAS VÍCTIMAS DE LA 2ª GUERRA MUNDIAL.

El concejal Jon Abril lee la moción y, posteriormente, por unanimidad, la aprueban siendo el texto el siguiente:

II. Mundu Gerrako biktimak oroitzeko mozioa

70 urte bete berri dira II. Mundu Gerra bukatu zela. Milioika biktima, desplazatu eta hildako utzi zituen. Euskal Herriko gizarteak ere pairatu zuen gerra hura, bereziki Ipar Euskal Herrian. 184 euskal herritar erail eta ehundaka atxilotuta eduki zituzten nazien kontzentrazio esparruetan, tartean beratarrak. Horietako gehienak frankismotik eskapo joan ziren Ipar Euskal Herrira, eta han nazien eskuetan erori ziren. Bi diktaduren biktima izan ziren.

Etxetik hurbil ere, Gursen, Biarnon, 6.555 euskal herritar kontu zituzten preso, eta hor ere izan zen beratarrik.

Memoria historikoa berreskuratu, justizia eta erreparazioa egiteko bidean, Berako Udalak, urteurren honen aitzakitan, gogora ekarri nahi ditu II. Mundu Gerran deportatu, desplazatu, atxilotu edota erail zituzten euskal herritarrak, eta bereziki, beratarrak.

Datu guztiak biltzeko zailtasunak dauden arren, eskuartean ditugunekin, honako beratar hauek, gutienez, pairatu zuten kontzentrazio esparruen ankerkeria:

Alemaniako kontzentrazio esparruetan:

- **Eugenio Alli Ferrero.** Beran jaioa, 1911n. Compiégneko kartzelan sartu zuten preso 1944ko urtarrilean, eta bi egun beranduago Buchenwaldeko kontzentrazio esparrura eraman zuten. 1945eko apirilean askatu zuten.
- **Antonio Clemente**. Beran jaioa, 1911n. Allirekin batera atxilotu zuten, eta bide bera egin zuen Buchenwaldera iritsi arte. Onik atera zen edo hil zuten daturik ez dago.
- **Jose Rubio Delgado**. Beran jaioa, 1918an. Ziegenheimeko kartzelan sartu zuten, eta handik Mauthauseneko kontzentrazio esparrura eraman 1941eko apirilean. 1942ko azaroan Dachauko kontzentrazio esparrura kamioian zeramatela desagertu zen. Ez dago bere berri gehiagorik.
- **Francisca Usandizaga**. Beran jaioa 1908an. Parisko kartzelan sartu zuten 1943ko abuztuan. Rabensbrückeko kontzentrazio esparrura deportatu zuten 1943ko abuztuan. 1945eko apirilaren 12an erail zuten bertan.
- **Victor Garcia-Serrano Retegi**. Neuengammeko kontzentrazio esparruan desagertua 1945ean.

Gurseko kontzentrazio esparruan:

- **Isidoro Fagoaga**. 1893an jaioa, tenore ospetsua 1940ko maiatzean atxilotu zuten, eta Gurseko (Biarno) kontzentrazio eremuan preso sartu zuten. Hilabete egin zuen bertan, eta aske utzi zuten.
- **Faustino Alli Ferrero**.

- **Tomas Apat Telletxea**
- **Severo Apat Telletxea**
- **Saturnino Garbala Ardanaz**
- **Eugenio Garcia de la Lastra**
- **Jose Garcia Fernandez**
- **Francisco Jauregi Telletxea**
- **Jose Sanchez Telletxea**
- **Jesus Telletxea Ordoki**
- **Juan Vallejo Corrales**

Horiek horrela, honakoa agertu nahi du Berako Udalak:

1. Frankismoaren eta nazismoaren biktima izan ziren euskal herritar eta beratar guztiak oroimenera ekarri nahi ditugu, jasandako bidegabekeria, sufrimendu eta erailketa injustuak salatzearekin batera.
2. Nazismoaren eta frankismoaren biktima izan zirenek egia, justizia eta erreparazioa izateko duten eskubidea aitortzea, eta Alemania eta Espainiako estatuei aitorpen hori egiteko exijitzen diegu.
3. Horrelakorik berriz gerta ez dadin, gizarte bakezale, berdinzale eta justuago bat eraikitzeko konpromisoa berrestea.
4. Berako espazio publikoan biktima horiek guztiak gogora ekarriko dituen aipamen edo oroigarri bat paratzeko konpromisoa hartzea.
5. Akordio hau Espainiako Gobernuari eta Alemaniako enbaxadari jakinaraziko zaie, eta komunikabideetan zabalduko da.

12.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B9/2015etik B11/2015era.

2) Ebazpenak: 2015eko apirilaren 9ko 87. ebazpenetik 2015eko maiatzaren 6ko 110.era arte.

12.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del B9/2015 al B11/2015.

2) Resoluciones: De la resolución nº 87 de 9 de abril de 2015 a la nº 110 de 6 de mayo de 2015.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

13.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:25etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:25 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
Mª Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta